



Erretzaileen eremua
Jon Alonso

Ipuin-liburu honek inpresio oso ona eragin dit. Ipuinak, oro har, oso txukunak dira, eta baten bat nabarmentzekotan, nik “Afera pertsonal bat” deritzona aipatuko nuke, asko gustatu zait eta. Oro har, Jon Alonsoren euskara jatorra, noblea eta sen onekoa da. Idazlearen benetako helburua, zinezko jomuga zein den gogoratzen digu: ondo idaztea. Eta Jon Alonsok ondo idazten du, eta naturaltasun handiz. Ongi harildutako esaldiak ez dira errazkerian erortzen eta esfortzurik gabe irakurtzeaz gain, esfortzurik gabe idatzi direlako itxura ematen dute aditzera (naturaltasuna). Jon Alonsok bere senaren esku uzten du idaztearen kontua, eta ipuinotan lortzen duen emaitza ezin zitekeen eraginkorragoa izan: dotoreziaz idazten baitu. Idazle batez esatea dotorea dela ez da gutxi, hitz-lore ederra da eta... “Non fida han gal” ipuinean aipatzen den hitz batekin esango dut: “Cojonudo!”.

Hitzetik hortzera:

Le bon sauvage: sendotasun intelektual

Eulia azaroan: salaketa dotorea; emakumeekiko kezka

Euskara izan: ipuin honen *leit-motiv* ez dago garbi, iluna da

Gizona teiltatu gainean: ingurumenarekiko kezka

Hasperen lumadunak: animaliekiko kezka

Suhiltzaileak: umore histrioniko eta apur bat sadikoa, ukitu sarkastiko eta absurduekin.

Jon Alonsok, euskararen autobidean garatutako adimen eta estetika naturala du.

Julio Cortazarren itzala. Ziur aski, baita Borgesena ere.

Jon Alonsoren liburu hau irakurtzen ari nintzela, ustekabeko gogoeta bat etorri zitzaidan gogora. Etxean badut liburu ugari osatutako liburutegi eder bat, eta horrez gain, edozein liburutegik eskaini ahal dizkidan funtsak ere hortxe ditut, eskura. Orduan, merezi al du nobedadeak irakurtzea? Ez al nuke gelditu eta azken 30 urteotan irakurri ditudan liburuak berriro irakurtzen hasi beharko? Baina, bere garaian asebate ninduten liburuek ez al nindukete orain dezepzionatuko? Edo alderantziz, bere garaian preziazten jakin ez nituen liburuak ez al nituzke orain beste ikuspegi batetik baloratuko...? Bestalde, ez al litzateke suizidio intelektual bat izango literatura garaikidea albo batera uztea eta jada iraganda dagoen literatura batean neure burua ixtea, areago kontuan harturik euskal kulturaren munduak izan duen bilakaera izugarri azkarra izan dela? Apenas ezagutzen nuen Jon Alonso, eta hortik gogoeta hau. Ez al nituzkeen oharkabean pasatzen utziko euskal idazle onak, kalitatekoak, zela nire despitagatik zela nire harrokeriagatik zela denbora-faltagatik zela beste edozein arrazoirengatik? Egia esateko, idazleok ez ezik, irakurleok ere ez al genuke noizean behin *mea culpa* intonatzen hasi beharko? Hala eginez gero, nork jakin zenbat liburu eta zenbat idazle jator ez ote genituzke deskubrituko, ezerezatik atereak bezala...